

IKUSPEGI INTERKULTURALA PROIEKTUETAN

2024 / maiatza



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Nork emandako ikastaroa

Curso impartido por:

SOS ARRAZAKERIA

www.sosracismogipuzkoa.org



ELKARTEENTZAKO IKASTAROAK

CURSOS PARA ASOCIACIONES

**Aurkezpen honen helburua, elkarteei informazio orokorra eskaintzea da.
Testu honek dibulgazio xedea du soilik eta ez du izaera ofizialik.**

El objetivo de esta presentación es ofrecer información general a las asociaciones.
Este texto tiene una finalidad exclusivamente divulgativa y no tiene carácter oficial

www.donostia.eus/partaidetza/formazioa



Zer da
kultur
aniztasuna?

- Kultura aniztasuna ez da berria, **gure artean beti egon da.**
Familietan, adiskideen artean, lanean eta, nola ez, elkarteetan.
- Azken urteotan, errealitate hori agerian geratu da eta **gizarte-paisaia berri bat gauzatu du.**
- Ondorioz, balioan jarri da, etorkizuneko erronkak hartzeko funtsezko beharrian bihurtzen den neurrian.

INTERKULTURALITATEAZ HITZ EGITEN DUGUNEAN, ZERTAZ HARI GARA? ZERGATIK DA GARRANTZITSUA?

- KULTUR ANIZTASUNA
- ESKUBIDE, BETEBEHAR ETA AUKERA BERDINTASUNA
- BEREIZKETA SAIHESTEA: BIZIKIDETZA, ELKARRIZKETA
ETA HARREMANA

kulturartekotasuna


- Prozesu horren **ezaugarri nagusiak malgutasuna eta** erronka konplexuak azkar eta erraz konpontzeko **errezeta magikorik ez egotea** dira.
- Prozesu eraldatzaile izateak, esan nahi du aldaketa sakona bilatzen duela hiriko hainbat eremutan gertatzen diren harremanetan, eta, beraz, gai izan behar du aintzatespen hutsetik eta kulturen arteko truketik harago joateko.

kulturartekotasuna


- Kulturen arteko begirada errealitate sozial eta kultural desberdin baten onarpenetik abiatzen da. Errealitate horrek, beste faktore sozial, demografiko, politiko eta ekonomiko batzuekin batera, gizarte garaikideei konplexutasun handiagoa ematen die.
- Kulturartekotasunak onartu beharreko egiturazko errealitate gisa hartzen du aniztasun soziokulturala, eta modu proaktiboan jorratu beharreko aukerak eta konplexutasunak planteatzen ditu.
- Kulturarteko ikuspegia ahuleziak erakutsi dituzten beste eredu batzuen bilakaera eta alternatiba gisa sortu da, hala nola asimilazionista edo multikulturalismoa




Akulturazio ereduak



Gizarte bazterkeria
Segregazioa



Asimilazioa



Multiculturalidadea




Kulturartekotasuna

Ereduen eta
norbanakoen
eskubideetan
oinarritutako politiken
arteko aldeak

	Eskubide ekonomikoak	Gizarte eta gizabide eskubideak	Eskubide kulturalak	Inklusioa
Langile gonbidatuak	✓	✗	✗	✗
Asimilazionismoa	✓	✓	✗	✗
Multikulturalismoa	✓	✓	✓	✗
Kulturartekotasuna	✓	✓	✓	✓

Akultrazio ereduak






Akultrazio ereduak gura gizartean:

*“Euskal erakundeek, oro har, aniztasuna kudeatzeko orduan kulturartekotasunean oinarritutako eredu baten aldeko apustua egiten duten arren, euskal gizartean oraindik ez da jarrera hori barneratu. **Gizarteak dekantazioaren (asimilazionismo leuna) aldeko elkarbizitza-eredu asimilazionista baten alde egiten jarraitzen du.** Hau da, integrazio-prozesuan egiten den ahalegina atzerritarren eta bertakoen erantzukizuna dela onartzen du, baina batez ere atzerritar jatorriko pertsonak gure gizartean nagusi diren ohiturekin eta tradizioekin ohitzeko ahalegina egin behar dutela uste du. ” (Ikuspegi, 2020)*

https://ikuspegi.eus/es/nuestras_publicaciones/barometros.php

Kulturartekotasunaren printzipioak




Kulturartekotasunaren printzipioak

1. BERDINTASUNA Kulturarteko ikuspegia giza eskubideen, demokraziaren eta eskubide berdintasunean (sozialak, ekonomikoak, politikoak eta kulturalak) oinarritutako herritartasun kontzeptuaren defentsarekiko konpromiso proaktibotik abiatzen da. Benetako berdintasunerantz aurrera egiteko, **ekitatearen aldeko apustua egin behar da**, eta horrek esan nahi du kontuan hartu behar direla testuinguruen eta abiapuntuen arteko desberdintasunak, tratu "berdina" emateak egoera bidegabeak ekar ez ditzan.

Desigualdad

Acceso diferente
a las oportunidades



¿Igualdad?

Herramientas
y asistencia
distribuidas
uniformemente




Equidad

Herramientas
personalizadas
que identifican
y abordan
la desigualdad



Justicia

Arreglar el
sistema para
ofrecer acceso
equitativo tanto
a herramientas
como a
oportunidades



Kulturartekotasunaren printzipioak

2. ANIZTASUNA AITORTZEA. Kulturartekotasunaren abiapuntua aniztasuna aitortzea da, bai eta gizarteko esparru guztietan egoteak duen garrantzia ere. Kulturaren kontzeptu zabala eta dinamikoa defendatzen du, baita identitateen izaera plurala eta hibridoa ere, eta horrek ez du ahalbidetzen pertsonak beren identitatearen elementu bakar batean (jatorria, etnia edo erlijioa) oinarritutako talde estankoetan sailkatzea. Kulturartekotasunak aldeztu du, halaber, desberdintasunak gainditzen dituzten elementu komun eta partekatuetan arreta jartzearen garrantzia.

Kulturartekotasunaren "formula"

$$\text{kulturartekotasuna} = \frac{\text{berdintasuna} + \text{aniztasuna aitortzea} + \text{elkarrekintza eta elkarriketa}}{\text{diskriminazioa} + \text{bazterketa} + \text{segregazioa} + \text{homogeneizazioa}}$$

Elkartzen gaituena

ZER DA KULTURARTEKO IKUSPEGIA?

Kulturarteko begiradaren abiapuntua gizarte eta kulturaren errealitate askotaritasuna da, nun hainbat kultura testuingurutako pertsonak bizi diren.

Aniztasun horren **ondorioa identitate aberatsa eta plurala** eratzea da, hiria identitate soziokultural ugari dituzten pertsonen eta kolektiboen topagune baita.



Kulturarteko ikuspegia

ZER SUPOSATZEN DU KULTURARTEKO IKUSPEGIA TXERTATZEAK?

Kontuan hartu beharreko alderdietako bat da kulturartekotasunak elkarte osoari eragiten diola eta bere eremu eta maila guztietan aplikatu behar dela: egituren, jardueretan, proiektuetan eta barneko eta kanpoko harremanetan.

Kulturartekotasuna zeharka txertatu behar da, helburuetatik eta balioetatik hasi eta ekintza eta harremanetaraino.

Horrek esan nahi du, lehenik eta behin, elkarte beraren estrategiaren parte izan behar duten jarrerak hartu behar direla,

ZER SUPOSATZEN DU KULTURARTEKO IKUSPEGIA TXERTATZEAK?

- GALDERAK ETENGABE EGITEA GEURE BURUARI
- INGURUNEKO ANIZTASUNA EZAGUTZEA ETA AITORTZEA
- PENTSAMENDU IREKITA EDUKITZEA
- PRESTAKUNTZA

Hausnarketarako galderak eta itxiera:

- Zein da artatzen den biztanleriaren errealitate soziala, ekonomikoa eta kulturala?
- Bazterkeria eta diskriminazioa eragiten duten mekanismoak ezabatzeke lanean ari gara?
- Aniztasunean oinarritutako narratibak sortzeko espazioak erraztu dira?
- Aitortzen al dira migrazioak eta diasporek eraikuntzan egindako ekarpenak?
- Irisgarritasuna erraztu al da elkarrizketa guneetan?

Begirada interkulturala proiektuetan

2. Saioa



Hausnarketarako galderak:

- Zein da artatzen den biztanleriaren errealitate soziala, ekonomikoa eta kulturala?
- Bazterkeria eta diskriminazioa eragiten duten mekanismoak ezabatzeke lanean ari gara?
- Aniztasunean oinarritutako narratibak sortzeko espazioak erraztu dira?
- Aitortzen al dira migrazioak eta diasporek eraikuntzan egindako ekarpenak?
- Irisgarritasuna erraztu al da elkarrizketa guneetan?



Zerk eragotz
diezaguke
begirada
interkulturala
izatea?

Giza arrazakeria

PENTSATU

Estereotipoak

SENTITU

Aurreiritziak

EKIN

Diskriminazioa

LE TOCA
AL RASTAFLAUTA
SEGURO QUE
HUELE MAL

VAYA CHONI


ME ESTÁ MIRANDO
DE MALA MANERA
SEGURO QUE CREE
QUE LE VOY A ROBAR

¿POBRECILLO,
TENDRÁ PARA PAGAR
EL PAN? CLARO,
SEGURO QUE RECIBE
MUCHAS AYUDAS

UF, A VER SI SALGO.
ESTA GENTE NO TIENE
NÁS QUE IGNORANCIA
Y PREJUICIOS.



Gorrotoaren piramidea



Desberdintasun ardatzak lantzeko moduak

- **Logika monofokala**

Politika publikoetan berdintasuna eta diskriminaziorik eza lantzeko modurik ohikoena logika monofokala, sektoriala edo segmentatua da. **Desberdintasun ardatz bakoitza zerbitzu edo sail ezberdinetatik jorratzen da.** Logika horrek alderdi positiboak ditu: desberdintasun-ardatz batetik eratorritako problematikak agerian uzten ditu, eta, besteak beste, ardatzak eremuetan duen ikuspegia zeharkako bihurtzeko oinarri gisa balio dezake.

Baina baditu eragozpenak ere:

- Ez du aukerarik ematen modu konplexuan jorratzeko pertsonok aldi berean desberdintasun ardatz batzuek zeharkatzen gaituztela.
- Baliteke talde identitarioak barne mailan homogeneousak direla pentsatzea eta haien errealitateak finkoak eta aldaezinak direla pentsatzea.
- Gainerakoak kontuan hartu gabe ardatz batean zentratzeak esku-hartzearen ondorioak beste ardatzekin alderatuta kontuan ez hartzea ekar dezake.

Desberdintasun ardatzak lantzeko moduak

- Askotariko diskriminazioa

Desberdintasun ardatz bakoitzerako organoak eta araudiak sortu beharrean, **hainbat ardatz aldi berean lantzeko moduan ezarriko dira**; baina horrek ez du esan nahi egitatea eta horiek gurutzatzeko modua kontuan hartuko direnik. Eredu horren abantailak eskala ekonomien aprobetxamendua, diskriminazioaren legeko interpretazioaren koherentzia eta askotariko diskriminazio-kasuei heltzeko aukera dira.

Desabantailei dagokienez, ikuspegi horrek, askotan, biltzen diren agenda espezifikoen arteko koordinaziorik eza dakar, ez du taldeen arteko lehia konpontzen, ezta ardatzen hierarkizazioa ere, ez ditu ardatzen arteko elkarguneak lantzen eta diskriminazioak logika gehigarri batetik ulertzen ditu.

Desberdintasun ardatzak lantzeko moduak

- **kulturartekotasuna**


Interseksionalitatea diskriminazioaren ikuspegi bat da, eta identitatearen hainbat alderdi, hala nola etnia, generoa, sexualitatea, klase soziala edo gaitasunak, elkarrekin gurutzatzen eta gainjartzen direla onartzen du, diskriminazio- eta zapalkuntza-esperientzia bakarrak sortzeko.

Ikuspegi interseksionalak onartzen du pertsonak **hainbat modutan jasan dezaketela diskriminazioa identitate anitzen arabera**, eta esperientzia horiek ezin direla erabat ulertu edo jorratu, identitatearen alderdi bakoitza modu isolatuan aztertuz gero.

INTERSEKZIONALITATEA

Kimberlé Crenshaw (1989)

Abantailaren lasterketa



Hausnarketak ikuspegi intersekzionaletik

- Intersekzionalitatea desberdintasunei begiratzeko eta ulertzeko modu bat da, **pertsonak haien ezaugarrietako baten arabera sailkatzetik harago doana.**
- Kontuan hartzen da pertsonen errealitateak eta beharrak baldintzatuta daudela desberdintasun ardatz desberdinekiko duten posizioak:
 - Ikuspegi intersekzionala sinplifikazioak, alborapenak eta bazterketak saihesteko proposamena da, desberdintasun-egoerak modu integralagoan ikusaraztea, aztertzea eta jorratzea ahalbidetzen duelako, desberdintasun ardatzek elkarrekin lotuta jarduten dutela kontuan hartuta.
 - Pertsonak, premiak eta arazoak hobeto ulertzen laguntzen digun begirada bat da, irtenbide egokiagoak bilatzeko.

Elkartearen barruko ikuspegi intersekzionaletik gidatutako galderak

- **Partehartzean:**

- Parte hartzeko espazioek ba al dute desberdintasun ardatzetako pertsona, erakunde edo erreferenteen ordezkartaririk?
- Zer desberdintasun ardatz ez daude ordezkartuta parte hartzeko guneetan?
- Zer egin dezakegu parte hartzeko guneetan normalean ordezkartuta ez dauden ahotsak sartzeko?

- **Detekzioan:**

- Zer desberdintasun ezkututzen dira jorratu nahi den gaiari dagokionez?
- Testuingurua kontuan hartuta (historikoa, soziala, lurraldekoa, etab.), zer desberdintasun ardatz dira garrantzitsuenak landu nahi den gaian?
- Zer pribilegio, aurreiritzi eta/edo estereotipo (talde teknikoenak, eragindako taldeenak eta inplikaturako beste eragile batzuenak) ari dira eragiten beharren detekzioan edo problematikaren definizioan?

Gida galderak ikuspegi intersektionaletik proiektuen diagnostikoan

- Nola lortzen da problematika horren eraginari buruzko informazioa, desberdintasun ardatzak eta gurutzaketa garrantzitsuak kontuan hartuta?
- Diagnostikoan modu aktiboan lan egin nahi duten pertsonak eta taldeek parte hartzen al dute?

Galdera gidariak proiektuen diseinuan ikuspegi intersektionaletik

- Landu nahi den gaian garrantzitsuak diren desberdintasun-ardatzei heltzen dieten taldeen artean lan-espazioak sortuko dira?
- Ekintzek kontuan hartuko al dute taldearen heterogeneotasuna? Eta hauen desberdintasun ardatzak?


Proiektuen inplementazioari buruzko galdera gidariak ikuspegi intersektionaletik

- Ekintzak egiten dituen taldeak ba al du prestakuntzarik intersektionalitate gaietan?
- Nola bermatzen da ekintzak ezartzen diren bitartean ez direla indartzen dauden estereotipoak eta aurreiritziak?
- Nola ikusarazten eta onartzen da lan egiten den taldeen aniztasuna?

Galdera gidariak proiektuen ebaluazioan ikuspegi intersekzionaletik

- Jasotako datuek aukera ematen digute informazioa gurutzatzeko, problematikari eragiten dioten desberdintasun ardatzak kontuan hartuta?
- Eragindako pertsonak edo taldeek parte hartzen al dute ebaluazioan?
- Zer eragin izan dute ekintzek, desberdintasun ardatzak kontuan hartuta?

Kulturartekotasunaren printzipioak



ESKERRIK ASKO



www.donostia.eus/partaidetza/formazioa